



ARALAR MENDIZERRA EZAGUTZEKO ETA DISFRUTATZEKO HAINBAT AUKERA 2021 UDAN

Bosgarren urtez jarraian, Aralar mendizerrak, udan honetan, bisita eta jarduerak egiteko aukera ugari emango digu, ingurune natural zoragarri hau ezagutzeko parada emanaz jarduera programa honetan, Itxasperriko baselizan (Arakil bailaran) eta Aralarko San Migel santutegian izarrren behaketa izango dugu; bi baso bainu; Nordic Walking hastapeneko bi bisita Latasan; Mendukiloko kobazulotan bisitak; eta, azkenik, bisita aukera zabala Aralar eremuan zehar.

2018ko azaroan, Aralarko San Migel Santutegiak, Aralar Elkarteak, Sakana Garapen Agentziak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak, lankidetzarako akordioa sinatu zuten. Berez, Hitzarmenean bertan bil-tzen zen moduan, akordioaren helburu nagusia ondorengo zen: "sinatu duten erakundeen arteko lankid-etza iraunkorrerako marko bat egitea da, hortik erabilera publikoa sustatzen dituzten jarduerak eta politikak bultzatzeko asmoarekin". Eta, horren azpitik, Aralarko balio naturalak, kulturalak eta historikoak sustatu eta babesteko helburua dago, turismo jasagarria (gizarte eta ingurumen arloetan), sentsibiliza-zioa eta ingurumen-heziketa gako nagusiak izanik.

Hori dela eta, bosgarren urtez jarraian, Aralarrek oso jarduera-programa erakargarria eta polita es-kaintzen du. Bertan, zonaldeko enpresen eskutik, Aralarreko mendizerraren natura eta kultura-balioak ezagutzeko aukera paregabea izango dugu.

Sakana Garapen Agentziak, Aralar Elkarteak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak programa hau anto-latu eta finantzatu dute, ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoarekin, batez ere, gure lurraldera bisi-tan etortzen direnak, hoiek ere gure zonaldea, helmuga turistiko bezala sustatu eta promozionatu deza-ten.

INFORMAZIO PUNTUA

Informazio etxetxea Santutegi aurreko zabalgunean egongo da udako hiru hilabeteetan (Uztailaren 7an ireki zen eta Iraila amaiera arte); egunero Aralarreko mendizerrako bisitariei harrera eta informazio zerbitzua eskainiko zaie, aholkuak eta informazioa eman, eremu natural honen balioak ezagutarazi eta ondoan dauden lurraldeen (Sakana eta Plazaola) turismo, zerbitzu eta ondarearen inguruko informazioa eman.

Horretarako, Larraungo Udalak, zerbitzu honetaz arduratzeko behar den langilea kontratu du; infor-mazio gunearen ordutegia astelehenetik larunbatera 11:00etatik 18:00etara eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara izango da. Bertako telefona 681921460 da eta posta elektronikoa smaralarturis-mo@gmail.com



2019 urtean, 7.919 bisitariei egin zitzairen arreta informazio gune honetan, udako hilabetetan. (%89,56a, Espainiar estatukoa, eta %10,44a atzerritarra). Aipatu iaz informazio punturik ez zela ireki pandemiaren eraginez.

BISITA GIDATUAK

Bisiten helburua Aralarreko natura-balioak (paisaiak, habitatak, basoak, geologia eta hidrologia interpretatzea, fauna eta landare-espezieak identifikatzea, eta abar), bertako biztanleriaren erabilera eta ustiapen tradizionalak (artzaintza, baso-ustiapena, basa-fruituak, bertako produktuak, eta abar), etnografia eta kultura (giza aztarnak paisaian, megalitoak, monumentuak, ohiturak), ezagutaraztea da, baita natura eta ingurumen praktika onei esker zaintzea eta sentsibilizazioa sustatzea.

Mendi ibilaldiak eta ipar martxa Aralarren, Orientazioa familian eta lagunartean Aralarren, Aralar mendi magikoa, Aralarko magalean orientazioa, Etxarri Aranazko haritz milurtekoak, Oderizko trikuharrien ibilbidea, Aralarko paisaiak eta trikuharriak, Arkuek eta Aralarko begiratokiak eta Aralarko hegaztiak ezagutzen dira burutuko diren bederatzita bisita gidatu motak, uztaila, abuztua eta Irailako asteburuetan (14 bisita guztira), guztiak Aralar mendizerra inguruan eskainiak.

Ibilbide gidatuak zonaldeko bi turismo aktibitate enpresek eskainiko dituzte: **“MIRUA”, “Actividades de Naturaleza” eta “Eduka Natura”**, eta pertsonako 12€ prezioa izango dute. Jarraian enpresa bakoitzak eskainiko dituen bisiten zerrenda:

MIRUA, Actividades de Naturaleza:

- Etxarri Aranazko haritz zaharrak (abuztuak 7)
- Oderizko trikuharrien ibilbidea (abuztuak 15)
- Aralarko trikuharriak eta paisaiak (abuztuak 8 eta irailak 11)
- Arkuek eta Aralarko begiratokiak (abuztuak 1, abuztuak 29 y irailak 5)
- Aralarko hegaztiak ezagutzen (uztailak 31 eta abuztuak 14)

Informazio osagarria eta izen emateak info@mirua.com edo **608 560 369** telefonora deituta. Epea: irteeraren aurreko ostiralaren 15:00ak

Eduka Natura:

- Mendi ibilaldia eta ipar martxa Aralarren (uztailak 17 eta irailak 18)
- Orientazioa lagunekin eta familian Aralarren (abuztuak 28)



- Aralar mendi magikoa (irailak 4)
- Orientazioa Aralarko magalean (irailak 12)

Informazio osagarria eta izen emateak edukanatura@gmail.com helbidean edo **608 560 369** telefono-ra deituta. Epea: irteeraren aurreko eguna 22:00ak arte

ITXASPERRI ETA ARALARKO SAN MIGELEN IZAR BEHAKETA:

Azken urte hauetan izandako ekintzarik kuttunenetakoa Aralarko mendizerratik behaketa astronomikoa izan da. Aurtengo eskaintza bikoitza da:

- **Abuztuaren 7an:** 22:30etatik aurrera Egiarretako **Itxasperri** baseliza erromanikoan (Arakil), astronomia tailerra egingo da. Leku hau aintzinako Donejakue bideko ardatza bilakatu zen. Zerua behatzeko jarduera teleskopio indartsuekin, dibulgatzaile astronomiko profesionalarekin. Konstelazioez hitz egingo da, haien istorio mitologikoez, izarren laguntzaz orientatzea, eta askoz gehiago! Prezioa 10€ pertsonako / 10 urtetik beherakoentzat, 5€
- **Irailaren 4a:** 22:30etatik aurrera Aralarko San Migel santutegiaren aurreko zabalgunean. Astronomia tailerra Aralar mendizerran. Zerua behatzeko jarduera teleskopio indartsuekin, dibulgatzaile astronomiko profesionalarekin. Konstelazioez hitz egingo da, haien istorio mitologikoez, izarren laguntzaz orientatzea, eta askoz gehiago! Prezioa 10€ pertsonako / 10 urtetik beherakoentzat, 5€

Ekitaldi hau **Jon Teus**-ek (www.observarelcielo.com) egingo du eta txanda aldeztatik eskatu behar da (plaza mugatuak), hurrengo helbideetan: **647 840 231** edota info@observarelcielo.com

BASO BAINUAK

Aralarren ongizate esperientzia eta basoko bainua bizitzea da helburua. Ibilaldi leun eta arretatsuen bidez, alderdi kognitibotik deskonektatzeko eta sentimenen bidez konektatzeko oinarrizko teknikak erabiliz: usaimena, ikusmena, ukimena eta entzumena. Bisita hauen helburua lasaitzen, inspiratzen eta energiaren betetzen duten esperientziak sortzea da, balio jasangarri eta birsortzaileei eutsiz. Bi bisita izango dira, irailaren 11n eta 25ean, aldeztatik erreserbatuta (plaza mugatuak dira – Gehienez 15 pertsona bisita bakoitzeko – Eta 25€ pertsonako.

Erreserbak posta elektronikoz: itziyugen@gmail.com



NORDIC WALKING HASTAPENA LATASAN:

Bi bisita izango dira, abuztuaren 1ean eta irailaren 5ean, Latasako Biltegitik Nordic Walking-a praktikatzen hasteko. Bisitaldiak 10:00etan hasiko dira, taldearen harrera, beroketa eta Nordic Walking aktibitateari hasiera emanez, 10:30etan Imotz inguruko bidezidorretatik ibilbide bat egingo da eta, ondoren, jarduera amaituko da bertako produktuarekin egindako dastaketa batekin. Jarduera hau Latasako Biltegiaren eskutik izanen da, pertsonako prezioa 12€ da eta jarduerarako erreserbak (mugatuak) aldeztuak egin behar dira 948391673 zenbakian edo kaixo@biltegia.eus helbidean.

BISITAK MENDUKILO LEIZEAN (Astitz – Larraun):

Mendukilo Leizea, familientzat eta haurrentzat bisita egokia da. Kobazulo misterioitsu honetan bi bisita mota egingo dira.

Fauna tailerra: Ordu bateko bisita egingen da lur azpiko faunari buruz izanen da eta ondoren ordu eta erdi iraungo duen tailerra osatuko da. Material birziklatuz osatutako xaguxarra egingen dute txikienek. 15:00etan.

Datak: Abuztuak 1, 15, 29 Prezioa: 8 €

Esploratzailearen bixita: Misterioz betetako bisita. Esploratzaile batek lagunduta (Mendukiloko gida) Ginkana modukoa, txikienek jokoak gainditzen doazen einean Aralarrek dituen altxor ezberdinak aurkituko dituzte. Ordu eta erdiko bisita. Goizeko 10:30etan.

Datak: Uztailak 25, Abuztuak 8, 22, Irailak 5 eta 19 Prezioa: 8 €

Hemen ere, aldeztuak erreserba egin behar da: (948 396 095 / 608 623 604 telefonoetara deituz edo mendukilo@mendukilo.com helbidean) Bisitek ordu eta erdi irauten dute.

COVID_19 NEURRIAK

Ekitaldi eta ekintza guztietan COVID_19 egoeraren aurrean beharrezkoak diren osasun, garbitasun eta prebentzio neurriak hartuko dira. Musukoa edo maskara eramatea komenigarria da. (Distantzia soziala mantentzen ez den ekitaldi guztietan beharrezkoa izango da).

Aralar, 2021-VII-14